

## **Metalaren Sektoreak tinko eta irmo jarraituko du hitzarmen berri bat lortu arte**

Gaur Ertzaintzak eta, ondorioz, EAJren eta PSEren Eusko Jaurlaritzak izandako jarrerak sektoreko 50.000 langileen aurkako gerra-deklarazioa suposatzen du.

Gaur, azaroak 2, seigarren greba eguna egiten ari da Bizkaiko metalaren sektorean, eta aurreko 5 egunetan bezala, %85eko jarraipena izaten ari da, oso zabala, Lurralde osoko enpresetan.

Goizeko lehen orduetatik ikusi ahal izan dugu nola enpresa ugarik jasan duten eragina beren ekoizpenean, eta horietako asko guztiz gelditu dira.

CCOOk, LABek eta UGTk publikoki salatu nahi dugu Ertzaintzak azken hiru greba egunetan izandako jarrera, baina, bereziki, gaur goizean, Bizkaiko metalgintzako grebalariek poliziaren erasoak, atxikipenak, identifikazioak eta atxiloketa indiskriminatuak jasan behar izan ditugunean, hainbat pertsona zauritu baitira. Greba-eskubidea oinarrizko eskubidea dela gogorarazi nahi dugu. Ildo horretatik, badirudi poliziaren jarrera, Eusko Jaurlaritzaren aginduetara, lehenagoko garaietakoa dela, ilunagoetakoa, bere burua demokratikotzat duen herri batena baino.

Horregatik guztiagatik, FVEMi eta gatazka honetan bazkide duen Eusko Jaurlaritzari esaten diogu: Langile klaseak borrokan jarraituko du pertsonen erosteko ahalmena bermatuko duen eta sektoreko langile guztientzat eskubideetan aurrera egingo duen hitzarmen bat lortu arte. FVEMen esku dago gatazka beharrik gabe luzatzen jarraitzea, eta Eusko Jaurlaritzaren eta bere errepresio aparatuen esku dago demokraziaren eta Herriaren irudia zikintzea.

Euskal Herrian, 2022ko azaroaren 22an